HERNANIK kronika

2000 urtea
Azaroaren 16a
**Osteguna**
Alea: 105
**www.hkronika.com**

# Umeentzako tailer eta jolasak larunbatean Portu auzoan

■ 5-11 urte inguruko umeentzat dira ■ 11:00etan hasiko dira Portuko plazan.



**Iazko ekainean Sorgintxulon egindako tailerretan, neskatxoa inspirazio bila.**

*DIAPOSITIBEKIN* ipuinak, jokoak...denetatik egin ahal izango dute Hernaniko umeek (larunbatean), Doberako *Kilkerra* aisialdiko taldeak antolatuta. Animatzen diren herriko ume guztientzako izango dira jolasak.

**AUZOZ AUZO**

Umeentzako ekintzak egiten ari da hainbat auzotan, *Kilkerra* taldea. Iaz Sorgintxulo eta Latsunben egin zituzten. Aurten Portuan, Berriak elkartearen festan (abenduak 17) eta Latsunben (gabonetan) egingo dituzte.

Hurrengo urterako, berriz, auzo elkarte guztiekin ari dira hitz egiten, udaberritik aurrera gauza gehiago antolatzeko. Helburua: umeek ondo pasa eta aldi berean auzoak ezagutzea. ❑

# Jai batzordeak bilera du gaur. Gaia: zer egin 9 talderen diruarekin

Asteleheneko *Kronikan* ateratakoa ez da zuzena, 9 talde hauek gaia epaitegietara eraman bai, baina gero atzera bota baitzuten errekurtsoa.

1997AN, jai batzordeko 9 talderi ez zien udalak eskatutako dirua eman (1.800.000 pezeta). Gaia epaitegietara eraman zuten talde hauek, baina, iaz taldeek berek, atzera bota zuten errekurtsoa: udal korporazio berriak, bazegokiela eta dirua ematea erabaki baitzuen.

Asteleheneko *Hernaniko Kronikak* argitaratu zuena ez da zuzena beraz, ez baita ordaintzera behartu duen inongo sententziarik iritsi; udal gobernu berriak bere erabakiz eman dio dirua bederatzi taldeeri.

**ZERTAN INBERTITU**

Jai batzordeko talde hauek, herriko talde guztientzat izango den zerbaitetan inbertitu nahi omen dute dirua (megafonia dela, mahai eta aulkiak direla...). Orain, Kultura, kirola, aisia eta gainontzeko arloetan dabiltzanei luzatzen die deia, bilerara azaldu eta euren iritzia emateko. Gaur, osteguna, arratsaldeko 19:30etan Biteri kultur etxean elkartuko dira. ❑

**‘BATASUNA PROZESUA’**

# Bost iritzi korronteak aurkeztuko dituzte gaur

Arratsaleko zazpietan, Biteri kultur etxean da bilera.



**Batasuna prozesuko bilera bat, Biterin.**

DUELA hilabete batzuez geroztik Ezker Abertzaleak martxan du “Euskal Herriko ezkertiarren batasasuna gauzatzeko eztabaida”, *Batasuna* izeneko prozesua. Hernanin uztailean egin zen aurkezpena eta irailean herriko talde eragilea aukeratu zen. Orain, jendeak egindako txosten eta proposamenak herriz herri eztabaidatzen ari dira.

**‘PIZTU’, ‘BATEGINEZ’, ‘ARRAGOA’, ‘ARALAR’...**

Gaurko bileran bost proposamen aurkeztuko dira: *Piztu*, Joseba Ibarbaburuk aurkeztuko du; *Bateginez*, Araitz Zubimendik -hernaniarrak biak; *Arragoa*, Jose Iriarte *Bikilak*; *Aralar* eta *Igitaia eta Mailua.* Azken biak aurkeztera inork etortzeko modurik ez, eta bideoa botako dute. Erdarazko aurkezpena, larunbatean da.

**BI EZTABAIDA PUNTU**

Eztabaidak bi puntu nagusi izango ditu: batasuna prozesua berari buruzkoa bat, eta bide politikoari buruzkoa bestea. ❑

# Huescara mendi ibilaldia datorren asteburuan

■ ‘Hecho’ko haranera joango dira, larunbat goizean aterata ■ Izena emateko azken eguna gaur.

HERRIKO gazte talde batek mendi ibilaldia antolatu du datorren larunbat eta iganderako. Ez da mendi irteerak antolatzen dituzten lehen aldia, lehen ere Bidarrai eta beste leku batzuetara joan izan dira.

**‘PLAN LASAIA’**

Asteburuko plana hauxe da: larunbat goizean 07:30etan Atsegindegitik atera Hechora bidean. Eguerdirako iritsi eta bertan bazkaldu; arratsaldean *plan lasaia Ibon Acherito*ra. Selva de Ozako aterpean lo egin eta igandean mendira, Quinboa Altora.

Izena *Txili* tabernan eman eta kotxea duenak, jarri. ❑




GALARRETA JAI-ALAI
FRONTOIA
Galarreta gaina z/g - HERNANI

**Gaur arratsaldeko 16:00etatik aurrera erremonte jaialdia:**

⇨ 1. partidua **ZEBERIO III - BADIOLA / ZALAKAIN - URKO**
⇨ 2. partidua **EZKURRA - MENDIZABAL / ZEBERIO II - EIZAGIRRE**
⇨ 3. partidua **ALTUNA II - AIZPURU / ELIZALDE - IRIARTE**
⇨ 4. partidua **BITORIA - J. ETXEBERRIA / KALONGE - URRETA II**

HERNANIKO

# kronika

Argitaratzailea: Dobera Euskara Elkartea. Zuzendaria: Xabier Etxeberria. Erredakzioa, argazkiak eta publizitatetea: *Hernani Komunikazioak*: J.M.Irazu U. Agirre eta A. Zerain. Egoitza: Larramendi 11. ☎: 943-330899. Faxa: 943- 336306. Eposta: *kronika@topagunea.com*.
Lege gordailua:SS-679/2000. ISSN 1576-8422.

# Herriko ‘Xake’ Txapelketa bihar hasiko da

■ Denera, 40 ajedrez jokalari inguru apuntatu dira lau tabernetan ■ Astean partida bat jokatuko eta martxo aldera bukatuko da.



**Apezetxea (iazko txapelduna) eta Txuria atzo partida jokatzen.**

AZKEN lau urteetan Aker tabernan antolatu izan dira Xake txapelketak. Aurten zabaltzea erabaki, eta lau tabernetan (Kitto, Bodega, Aker eta Txema) egingo da: “Txa-pelketa hau *xakea* herrian zabaldu, eta jokalari ezberdinen aurka jokatzeko aukera izateko sortu da”.

**HIRU FASE**

Xake Txapelketak hiru fase ditu: lehenengoan 3-4 jokalariko taldeak izango dira, beren artean partida bana jokatu eta denak pasako dira bigarrenera. Bigarren fasean, berriro taldeak osatu, elkarren kontra partida bana jokatu eta talde bakoitzeko bi joango dira aurrera. Hortik aurrera, kanporaketak etorriko dira eta bina partida jokatuko dituzte finala arte.

**EGUNAK ETA EPEAK**

Zein egunetan jokatu bikoteek berak erabakiko dute, baina, lehen faseak abenduaren 12-rako bukatua behar du. ❑

## Arantxa Samsok marrazki erakusketa jarri du Biterin

KOLORE biziak, emakume irudi asko, ladrilu eta harri-txintxarrak bildu ditu Biteriko erakusketan, Arantxa Samsok. Marrazki erakusketa atzo, astezkena, zabaldu zen eta hilaren 29ra arte zabalik izango da 18:00etatik 20:00ak arte. ❑



**Aratxa Samsoren marrazki erakusketa Biterin.**

## ASTEBURUKO EMAITZAK ( ESKOLARTEKO KIROLA)

**■ ESKUBALOIA**

*Mutil alebinak:*
Egape B 4
Urumea A 0
*Benjaminak:*
Langile A 1
Langile C 4
*Benjaminak:*
Langile B 3
Elizatxo A 2
*Benjaminak:*
Urumea 2
Elizatxo B 2

**■ ERRUGBIA**

*Infantilak:*
Ordizia 5
**Hernani 15**

Atletiko 0
**Hernani 20**

Eibar 10
**Hernani 10**
*Kadeteak:*
Eibar 0
**Elizatxo A 88**
*Benjaminak:*
Inmaculada 1
Elizatxo A 1
*Benjaminak:*
Langile A 1
Langile B 1

*Benjaminak:*
Urumea 3
Elizatxo B 0

**■ BOLEIBOLA**

*Neska kadeteak:*
Barandiaran 0
**Langile 3**
*Mutil kadeteak:*
**Urumea 0**
Katxisriau 3
*Neska infantilak:*
**Urumea 0**
Erniobea 3
*Neska infantilak:*
**Langile 0**
Andoaingo ikastola 3
*Neska alebinak:*
Langile A 3
Elizatxo B 0
*Neska alebinak:*
Elizatxo A 2
Langile B 1
*Neska alebinak*
Leizaran A 3
Inmaculada 0

**■ FUTBOLA**

*Neska kadeteak:*
Langile 0
Lasarte BHI 4
*Mutil infantilak:*
Langile 0
Lasarte BHI 4
*Mutil infantilak:*
Laskurain 5
**Urumea 0**

**■ SASKIBALOIA**

*Alebinak:*
**Langile A 47**
Jesuitas 9
*Alebinak:*
**Inmaculada 31**
Herrera 14
*Alebinak:*
**Langile B 40**
Colegio Aleman 29

**Hernaniko Kronika**
Eskatu zure kioskoan

## HERIOTZAK

**Maria Zabala Zabala**
Asteartean hil zen 72 urte zituela.

## ■ HERNANIARRAK BEHOBIAN

# LLamazares aurrena gizonezkoetan eta Urdangarin emakumezkoetan

Ixiar Urdangarinek 4. egin du nesketan.

| ABIZENA | IZENA | POSTUA | DENBORA |
|---|---|---|---|
| 1-LLANDERAS RODRIGUEZ | JOSE JOAQUIN | 146 | 1:13:39 |
| 2-AGIRREZABALA AIZPURU | FELIPE | 148 | 1:13:41 |
| 3-ROMAN BERMEJO | SERGIO | 160 | 1:14:06 |
| 4-ARREGI ZUBIMENDI | AITZOL | 247 | 1:16:06 |
| 5-PIKABEA UGALDE | ROSARIO | 263 | 1:16:26 |
| 6-MERINO BOBILLO | FELIX | 326 | 1:17:26 |
| 7-URDANGARIN SANTAMARIA | IXIAR | 397 | 1:18:31 |
| 8-MURUA URDANGARIN | AITOR | 398 | 1:18:32 |
| 9-IRIONDO GOENAGA | IBON | 551 | 1:20:11 |
| 10- ETXEBERRIA BALERDI | FELIX | 605 | 1:20:44 |
| 11-CAZA PERCAZ | LUIS | 675 | 1:21:32 |
| 12-BERMEJO LUCAS | JUAN MARI | 809 | 1:22:57 |
| 13-ADURIZ IZAGIRRE | IÑAKI | 842 | 1:23:14 |
| 14-GALAN BAILE | LUIS | 878 | 1:23:27 |
| 15-IRAOLA URBIZU | HARITZ | 897 | 1:23:33 |
| 16-OLLO ZABALA | JOSE IGNACIO | 909 | 1:23:37 |
| 17-ALBERDI ETXEBERRIA | JAVIER | 934 | 1:23:46 |
| 18-GALARRAGA ERRAZKIN | HARKAITZ | 962 | 1:24:00 |
| 19-MITXELENA FERNANDEZ | IBON | 1133 | 1:25:20 |
| 20-ITURRALDE MORENO | JOSE ANDRES | 1136 | 1:25:21 |
| 21-MURUA MENDIZABAL | JOXE MARI | 1218 | 1:25:56 |
| 22-GALAN JIMENEZ | FCO. JAVIER | 1219 | 1:25:57 |
| 23-AIZPIOLEA IRADI | XABAT | 1320 | 1:26:30 |
| 24-BARQUILLA VAQUERO | RODRI | 1347 | 1:26:41 |
| 25-IRADI OTAEGI | XABIER | 1383 | 1:26:57 |
| 26-ITOIZ DIEZ | JOSE ANGEL | 1425 | 1:27:11 |
| 27-GALARRAGA ERRAZKIN | AITOR | 1447 | 1:27:19 |
| 28-GARMENDIA OLARRA | JON | 1500 | 1:27:42 |
| 29-AGIRREZABALA ITURBE | JON | 1679 | 1:28:25 |
| 30-SANSINANEA | JUAN XABIER | 1985 | 1:29:52 |
| 31-MUJIKA PEREA | MIKEL | 2067 | 1:30:12 |
| 32-GALARTZA ETAYO | MANU | 2086 | 1:30:16 |
| 33-TOLOSA AZIPURUAFERMIN | 2193 | 1:30:51 | |
| 34-MERINO BOBILLO | TEO | 2200 | 1:30:54 |
| 35-GONZALEZ RODRIGUEZ | JAVIER | 2247 | 1:31:13 |
| 36-SANTIN FELIPE | JOSU | 2263 | 1:31:19 |
| 37-UZKUDUN MERINO | SERGIO | 2307 | 1:31:35 |
| 38-RUIZ URKIAGA | ALVARO | 2309 | 1:31:36 |
| 39-ITURRALDE MORENO | JUAN BAUTISTA | 2310 | 1:31:36 |
| 40-ARRIETA GARMENDIA | MIKEL | 2433 | 1:32:15 |
| 41-SANTANA IRAOLA | JOSE MARI | 2438 | 1:32:17 |
| 42-GOIKOETXEA LASA | EIDER | 2443 | 1:32:20 |
| 43-ADURIZ IRURETAGOIENA | XANTI | 2616 | 1:33:18 |
| 44-ERROIZENEA MIRANDA | PATXI | 2691 | 1:33:43 |
| 45-URRETABIZKAIA LANDABEREAAGUSTIN | | 2869 | 1:34:36 |
| 46-OÑATE VILLARON | IBON | 2896 | 1:34:44 |
| 47-URIA GARIN | AIHEKO | 2897 | 1:34:45 |
| 48-TOLOSA GARAYAR | ANDONI | 3137 | 1:36:04 |
| 49-URIA ZUBIARRAIN | EDORTZ | 3241 | 1:36:38 |
| 50-ALBERDI PADRONES | IÑAKI | 3242 | 1:36:39 |
| 51-RODRIGO CHAPARRO | MARTXEL | 3254 | 1:36:42 |
| 52-ALVAREZ ASTABURUAGA | LUIS | 3423 | 1:37:34 |
| 53-BERECIARTUA GOIKOETXEA | IBON | 3441 | 1:37:38 |
| 54-QUEIJA PICOS | JOSE MARI | 3484 | 1:37:47 |
| 55-CARRASCO BLAS | MIKEL | 3587 | 1:38:17 |
| 56-MURUGARREN ARIZTEGI | KEPA | 3619 | 1:38:24 |
| 57-IJURKO URRUZOLA | IÑAKI | 3651 | 1:38:35 |
| 58-LAMUEDRA IDIGORAS | MITXEL | 3674 | 1:38:42 |
| 59-GARIN ZUBELDIA | KETXUS | 3701 | 1:38:50 |
| 60-GONZALEZ LUIS | JOSEMA | 3756 | 1:39:07 |
| 61-RODRIGUEZ APAOLAZA | FºJAVIER | 3850 | 1:39:32 |
| 62-GALLEGO PRADO | PACO | 3862 | 1:39:36 |
| 63-LECUONA GOYA | LEONCIO | 3917 | 1:39:50 |
| 64-ETXEBERRIA TOLOSA | JOSETXO | 3950 | 1:39:57 |
| 65-ORTIZ SANTAMARIA | GREGORIO | 3960 | 1:39:59 |
| 66-BARRADO CASCO | ANTUAN | 4052 | 1:40:20 |
| 67-IRAOLA BAKETADO | JAVIER | 4170 | 1:40:52 |
| 68-LERTXUNDI ARTOLA | TXIRU | 4172 | 1:40:52 |
| 69-ORUEZABALA IRAOLA | IÑAKI | 4207 | 1:41:04 |
| 70-EIZMENDI TEJEDOR | IÑAKI | 4224 | 1:41:08 |
| 71-ETXEZARRETA RUBIO | FERNANDO | 4319 | 1:41:35 |
| 72-UBARRETXEANA AROZENA | JESUS MARIA | 4327 | 1:41:37 |
| 73-MIRANDA RONCERO | TXEMA | 4427 | 1:42:04 |
| 74-DORRONSORO ARREGUI | KEPA | 4442 | 1:42:09 |
| 75-DORRONSORO ARREGUI | GORKA | 4450 | 1:42:10 |
| 76-RODRIGUEZ SALVADOR | JON | 4457 | 1:42:12 |
| 77-PIKABEA URDANGARIN | KEPA | 4475 | 1:42:15 |
| 78-IRIARTE ANSORENA | XABIER | 4559 | 1:42:36 |
| 79-PATXE LOPEZ | JOXE MARI | 4637 | 1:42:59 |
| 80-AZPIOLEA APAOLAZA | MARIAJE | 5049 | 1:44:44 |
| 81-NEVADO LOPEZ | PATXI | 5092 | 1:44:55 |
| 82-OLKOL ALDAREGIA | IKER | 5383 | 1:46:19 |
| 83-PFEIFFER | JORGE | 5397 | 1:46:23 |
| 84-LASA JAUREGI | ROSARITO | 5699 | 1:47:50 |
| 85-GURUTZEGA ZUBILLAGA | MIKEL | 5700 | 1:47:50 |
| 86-GOIKOETXEA LASA | NEREA | 5705 | 1:47:51 |
| 87-ZUBILLAGA INSAUSTI | MANU | 5741 | 1:48:05 |
| 88-JUARISTI IRIBARREN | FCO JAVIER | 5745 | 1:48:05 |
| 89-CARCEDO GONZALEZ | IGNACIO M. | 5818 | 1:48:24 |
| 90-LIZASO IRASTORZA | LOURDES | 6124 | 1:50:08 |
| 91-GARRO ARRUEBARRENA | ANTTON | 6183 | 1:50:22 |
| 92-GAGO VAY | IÑAKI | 6366 | 1:51:19 |
| 93-MUNDUATE OLASCOAGA | UNAI | 6401 | 1:51:32 |
| 94-IRIONDO GOENAGA | OLATZ | 6666 | 1:52:58 |
| 95-PEREZ SAN JUAN | JUAN MANUEL | 6684 | 1:53:02 |
| 96-BARRAGAN TORRES | RAMON | 6809 | 1:53:42 |
| 97-FERNANDEZ | JOXE | 6818 | 1:53:45 |
| 98-BERNARD | CUVE | 6819 | 1:53:46 |
| 99-LORANCA PEÑA | ENRIQUE | 7025 | 1:54:54 |
| 100-SARASUA SAMINDE | MIKEL | 7056 | 1:55:07 |
| 101-CEBALLOS PLAZA | JOSE LUIS | 7222 | 1:56:19 |
| 102-ZABALA SAROBE | EDUARDO | 7394 | 1:57:21 |
| 103-ETXEBESTE MUTUBERRIA | JOXEAN | 7414 | 1:57:27 |
| 104-GARCIA IZCO | MIGUEL | 7479 | 1:58:09 |
| 105-MARTINEZ ZUMETA | AMAIA | 7542 | 1:58:44 |
| 106-IRAOLA URBIZU | JOSE MARI | 7861 | 2:01:21 |
| 107-LOPEZ DE ZUBIRIA FRANSOYGERMAN | | 8075 | 2:03:56 |
| 108-MUNDUATE IRURETAGOYENAGERARDO | | 8160 | 2:05:04 |

* Iturria: Club Deportivo Fortuna.

## ZERBITZUAK

**☎ TELEFONOAK**

◗Taxiak: 943 550093
◗ Udaltzaingoa: 943 333288
◗ DYA: 943 464622
◗ Autobusak 943 556662
◗ Anbulatorioa: 943 557750

**✚ FARMAZIAK**

◗Egunez: Aizpuru
Latxunbe Berri,11
☎ 943 553582
◗ Gauez: Aizpuru
Latxunbe Berri,11
☎ 943 553582